

# BEZEROEKIN HARREMANAK

- **Gure enpresa edo erakundearen jomuga den merkatu-segmentuarekiko izango ditugun harreman motak.**

Harreman ona, estua. Beraien arazoak ulertu behar ditugu, eta behar dutenerako laguntza eskaini. Guregan konfiantza izan behar dute, edozein duda izanez gero lasaitasun osoz galdetu ahal izateko, lotsa gabe.

Beraien familien harremanari dagokionez, gure ezagutza eta ahalmenak erakutsi behar diegu, guretan konfiantza izan eta bezero gehiago lortzeko. Lasaitasuna transmititu behar diegu, gure eskuetan ondo egongo direla ikusteko eta gainera gure lana ondo betetzen dakigula ere ikusi behar dute, eta hori gure esku egongo da.